


**SAGARRA
ta
MIZURCA**

FELIX ZUBIAGA

Muintegi munoan, lur marduleko toki haizetsu eta eguzki-tsuian, hantxe egoan Sagarra Sagarrondoa, erraldoia baizen zaintsu eta ama baizen emonkor. Ha zan sagarraren sagarra! Sagarjatorra, inon bada. Loreak loreilean usaintsu eta margotsu emoten ekizana eta uztaroan uzta yori eta mamintsua.

Umeak, txoriak eta ugazaba pozik etzaten ziran haren gerizpean, bere sasoiari danentzako atalonik ba eukala. Muintegiko plazetan haren sagar-aleak lehen sariak eroezan, "sagarraren edertasuna, Jaungoikoak bedeinkatuta!" gorai patzen ebezan plaza-andrak eta haren biribiltasunaren ditziran laban egiten eben erosleen begiak.

Sagarrondoa pozik egoan daneri on egiten eta danak maite ebela. Bizitza eder jakon halako ganoraz, batez ere udara aldian, lorez eta igaliz bularrak sendo erantzuten eutsi enean.



Udazkenean, soina eratzita ikustean, bakardadearen oski-
rritxoa sentitzen hasten zan, eta hareago ostrotza urdindo eta ,
lege danez, orbela jausten jakonean. "Oi ene! -ames egian or-
duan Sagarrondoak, soina bilusik eta hain barik ikustean. -Nork
izan leiken beti eder, loretsu, mamintsu!..."

Behin, negute aldean, Pinu anderea ikusi eban mendi-ma-
galetik gora zut eta lirain bera, astrakanezko berokia soinean
eroala. "Ene! -antzi egin eban Sagarrondoak-, Nork leukaken
harexek daukan abrigua negurako..."



JESSE-83

Zozoa beste egunetan legez, mihura-pikorrak jaten makalera joan zanean, mihureak mesedea eskatu eutsan:

—Hi, zozo baltz, hoakit Sagarrarengana eta esaiok neuk bete daikedala bere guraritxo. Esaiok ez dagoala ehunlari hoberik inguruan.

Joan zan ba zozoa bere piku eta hatzapparretan mihurearen pikor likinen hazia eroala eta "txorrotxio-txi... errekadoa emon eutsan Sagarrondoari. Sagarrondoak baietz, gurako leukela halako berokia...




JESSE 83

Negu beratan jaio zan mihurea Sagarraren adarretan, zozo mezulariak pikor likina itzi eban toki guztietan. Lehenengo kui txikiaren antzeko belarritxoak urten eban eta belarritxo haren artean kui-begien antzeko pikor zurizkak nabarmendu ziran. Abri-guaren hasipena zan oraindino. Ehuna apurka-apurka ehotzen joan zan. Margoz berarizkoa, udabarriko ostrotzaren orlegia emoten ebala. Sagarrondoaren adar erraldoiei laburtxo etorkien hasieran, baina negurik-negu (mihure ehunlariak lana astiro egiten dau, astiro eta zihur) gero eta orniduago egiten jakon soine-ra.

Kui-belarritxoak alkarren ganean ugaritzen eta kirruten joan ziran, katanar berokia bailitz, adarren bilustasuna janzten ebala eta pikor zurizkak ñabar loretzen ebela.


—Udean harro, neguan harro! Nor ni halako? —puztu egin zan Sagarrondoa, abere bitxien narruaz janzten dan emakumearen antzera, eta sagarkide lagunak sapuzten ebazan.— Hor dozuez baserritarrok bilusik...



Udean Sagarrondoak sagarra irudian eta neguan mihurearen sukursala. Sagarrondoak esan, "ni neu" eta "nik neuk" esan eroan berba egiten eban bakoitzean, baina bihotza modeak eukatsan eta hazurra mihurearen sustraiak gero eta sakonago.

Hurrengo udabarri baten, Sagarrondoari lore barriak pipildu jakozanean, hutsaldia sentidu eban bularretan. Ezin emon behar laingo esnerik edegi jakozan lore guztiei eta potindu jakozan sargartxo guztiei. Loreetariko asko, jausi egin jakozan zoldu orduko, eta polintxo askok, maskal, burua iduli eben lurrera. Iraun ebenak eurak ere erkintxo etozan.

—Zaharkitu egin ete naz ba? —lotsagorritu zan Sagarrondoa, amazonearen halako bere ohiko bular ospetsuak oroitzean.



Urte haretan Sagarrondoak ez eban irabazi saririk Muintegiko plazan. "Maminez erkintxo, jastamenez lakartxo" emon ebezan plaza-andreak. Ez-nahiko haregaz Sagarrondoa ebaluaketan hainbarik gelditu dan umearen saputza hartu eban.

Haizea betiko osasunez, bularrak egurasten igaro zan Muintegiko muno gainetik eta, Sagarrondoaren nahigabea oharturik, honela aholkatu eutsan:

—Sagarrondo, zuk zeu izan behar dozu eta ez beste inor. Kontu eizu, galzorian daukazula zeure jatorrizko mendu ona. Jaurti eizu bada zure etxetik kaltegarri jatzun oroldi hori (mihureak, izan ere, inoren lepotik bizi oi diran oroldietarikoak izan ezeze, oratzen dauan zugaitza jan egiten dau apurka-apurka)

Ebakuntza egin behar zala, esan eutsien medikuak: adar batzuk ebagi, beste bazuk hazurretaraino urratu eta moztu harrenbat.



—Zer? —asaldatu zan Sagarrondoa.— Neure abriguaren mangak eta neure neguko adatzen mototxa ebagi?

—Hobe dozu besamotz edo ule-motz, osasunaz jabetu — aholkatzen eutsien sagarlagunak—, beso-abar eta txima guztiekin haizearen harrapakin izatea baino.

—Zuk inbidia! Horixe! Inoren ederrik ikusi ezin! —Sagarrondoak turrut egin eutsen aholku emoileei.

Bizimodua ez aldatzearren, lagunen esanei entzungor eginik, mihureari saldu eutsan bihotza, beragaz sasi-ezkonduta legez bizi zalako, hain zuzen. Mihureak negua epeldu eta bilustasuna estaltzen eutsalakoan.

”Sagarrondoa ez da sagarrondo —inoen lehendik ezagutzen ebenak.— Lehen zan amultsua eta orain dan murrizta, mustur astin eta bakartia! Lehen zan eskuzabala umeeekin, txoriekin, uga-zabagaz... eta orain dan zikotza, agorra, berekoia!”...

Kontzientzia eukan erdi lokartu Sagarrondoak eta ez inori eta ez bere buruari ez eutsan jaramonik egiten. Behin, neguteko loasman egoala, alkarrizketa hau entzun eban bere burko ondoan:



—Aurten diakagun emoitzaz negozioa zabaldu egin gein-kek...


—Denda barriak idegi? Sagarrondoak, makalak baino emonkorragoak dozan, izan ere.

—Ba dakik, Gabonetan edergailuz saltzen danaz, erosle asko diatork...

—Izan ere, txoriak ia geurera diatozan ta ez loti horrenera...

Sagarrondoak erdi amesetan "loti horrenera" entzun ebanean, belarriak apur bat erne eta eurak, mihure senar-emazteak zirala, konturatu zan. Ez eban erratza hartu, mahaikide hareek etxetik jaurtiteko kemenik ere ez eukan. Ez eban gura etxean agirikarik edo "nor da hemen agintzen dauana?" arrotzekin arrazoi-ketan hasi. Ezentzuna egin eta aurrera. Gainera, mihure senar-emazteak ez eben guzurrik esan "loti horrek" esatean, bada logura zan.


Sagarrondoak batzuetan ames liluragarriak eukazan lotaldietan: putzezko sagar handiak emoten ebazala eta plastikogaien erakusketan saritua izan zala, plaza andrei purrust eginaz. Bai eta manikien zubian ere, bere astrakanezko abrigu lodiaz magal-auzitxoak eginaz, ohiko sagar-lagunen bekaitza gordintzen ebala. Besteetan mindu egiten jakon amesetea onenean: plastikoak plaf, lehertu egiten jakon, saria jasotzean, edo bardin manikien zubitxoan, josturak beretik emonaz, tarrat egitson, atzeko aldea haizetara eutsala.



Amesak itzuritearren, gero eta mingarriagoak egiten jakozan eta, Sagarrondoak mihura-burua egiten ikasi eban,” ez naz ni sagarra, mihurea naz eta hor konpon”, ez eban urten gura bere gaitzen erantzule. Hainbat txarrago. Hain zuzen ere, orduantxe emoten eutsan irudimenak sasi-mediku ankerren hatzaparrak bizkarrazurreko unea zurruputzen eutsiela eta, loaren loaz azkeneraino hildura eiten, zainetan zitala zitutzen eutsiela orratz itzalgarri batez.

Udabarrian bestetan baino beranduago itzartu zan Sagarrondoa. Adar-punta banaketan bakarrik loretu jakozan itxaropenak jaiotza eta heriotza izan ziran. Mihurea barriz osasuntsu egoan uda eta negu. Haren pikor likinaz begiratzuz, drogaminez dagoan gazte joanak legez, loretzat emoten ebazan eta askatasun-bide bere eraileak. Odola mihureak hartu eta gogoa mihuratu... Oi ene!

Lurra berbera zan Muintegiko munoan, haizea lehena, eguzkia lehengoa, baina Sagarrondoa... Sagar mihuratua zan eta izenlaguna, izena baino gehiago, zan haren etxean. Lotsagarria benetan Muintegiko munoko lurrarentzat, haizearentzat, eguzkiarentzat!




JESSE-83



Hazurretako minak jota, azkenik adarrak igarten hasi jakozan Sagarrondoari. Bizia sustraietatik, besoetatik, bihotzetik joakoa eta ostaz eukan konorterik zorigaitzean konturatzeko. Umeak harrika, txoriak kaka egiten eutsien, sagarrik emoten ez ebalako.

Ugazabak Sagarrondoari haizkorea orpo-orpotik ezartea erabagi eban. Ez eban euki halabeharrik. Udazkeneko lehen hegoaizeak Sagarrondoa erabat lurrera eratzi eban.

Hurrengo goizean etorri zan zozoa mihurea jaten eta Sagarrondoa lurrean hilik ikustean, "txui-txui-txuiiii, fi-fi-fiii..." asaldua jo eban eta makalari edestu eutsan zoritxarra. Makalak malako apal bat ixuri eban. Ai ene!



JESSE-83

UMEENTZAKO IPUIN-TXORTA

- 1.—MARI ANBOTON ETA GORBEAN, Juan Manuel Etxebarria
- 2.—BAKOITZARI BEREAN, Ramón Etxebarria
- 3.—TXOLINTXU ETA NEKANETXU, Bibiñe Pujana - L. C. Abeal
- 4.—KARRAMARROEN IBILALDIA, Felix Zubiaga
- 5.—FRAKOTE IKERLARI, Ana Arruza
- 6.—MARI ANBOTOKOREN IBILALDIAK, Josu Penades Bilbao
- 7.—KUKUAMETS, Juantxu Rekalde
- 8.—BASAJAUNAK, Juan Manuel Etxebarria
- 9.—AMAMAREN ABERETXOAK, Bibiñe Pujana
- 10.—LAMIÑAK, Juan Manuel Etxebarria
- 11.—KUKU PASOTA, Felix Zubiaga
- 12.—TXITXIBURRUNTZI ETA ARATOSTE, Bibiñe Pujana
- 13.—HALABEHARREZ MEDIKU, Felix Zubiaga
- 14.—IBANENTZAKO ARGI APUR BAT, Edurne Urkiola
- 15.—MAINTON ETA PRAISKU, Bibiñe Pujana
- 16.—ABEREAK, Igone Magunagoitia
- 17.—ONDO IKASITAKOAREN AGERBIDEA, Ramon Etxebarria
- 18.—KISMI ETA OLENTZERO, Juan Manuel Etxebarria
- 19.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 20.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 21.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 22.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 23.—ARPEKO MARI, Eusebio Erkiaga
- 24.—SAN MARTINTXO, Juan Manuel Etxebarria

